

azpeitianzer?

udal aldizkaria

135. zenbakia
2011ko urtarrila



helduen danborrada
egoera berrira egokituz

ale honetan zer?

- 3 Fototeka
- 4 Proposamenak eta kexak
- 5 Iraurgi Lantzen
- 6 Kirolari onena 2010
- 7 Igerilekua
- 8 Erreportajea
- 10 Eraikitzen
- 12 Motxean
- 14 Agenda
- 16 Soreasu aparkalekua eta botika txandak

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

Azpeititik kanpo bizi
arren, zure etxean jaso
dezakezu Azpeitian Zer?
aldizkari hau posta bidez.
Egin eskaria 943 15 71 85
(Alkatetza) telefonon.



telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00	Euskara Patronatua	943 81 45 18	Bailarako Nekazari	
Alkatetza	943 15 71 85	Udal Euskaltegia	943 81 19 47	bulegoa	943 81 24 85
Idazkaritza	943 15 71 98	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75	Enplegu Bulegoa	943 15 03 00
Kontuhartzailetza	943 15 71 89	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83	1. Epaitegia	943 02 51 91
Hirigintza	943 15 71 91	Ingurugiro Etxea		2. Epaitegia	943 02 51 92
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Fundazioa	943 15 17 13	Erregistro Zibila	943 02 51 99
Kultura	943 15 70 68	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70	DYA	943 46 46 22
Komunikazioa	943 15 79 82	Kontsumitzaileen		Gurutze Gorria	943 85 32 97
Kirolak	943 15 00 95	Informaziorako Bulegoa	943 15 71 93	S.O.S. Deiak	112
Parekidetasuna	943 15 79 28	Baigera I	943 81 44 64	Taxiak	943 81 13 07
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Baigera II	943 81 23 89	Urkome	943 81 65 00
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Ingurugiro Etxea			
Zapo Txoko	943 15 71 61	Museoa	943 81 24 48	Sexologia zerbitzua	943 15 10 30
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60			Etxebizitza bulegoa	943 81 66 99
Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Alkoholiko Anonimoak	629 14 18 74	Astearte eta ostegunetan	
Liburutegia	943 15 71 95	AL-ANON Alkoholikoen		18:30etik 19:00etara eta asteazkenetan	
Udaltzainak	943 15 13 13	Sendiak	943 47 54 03	12:00etatik 14:00etara.	
Suhiltzaileak	112	Trenaren Museoa	943 15 06 77	Baserritarren produktuen	
Igerilekua	943 81 41 21	Anbulategia	943 02 54 00	merkaturatze bulegoa	943 15 10 29
Kiroldegia	943 81 30 69	Larrialdiak	943 02 54 01	Astearteetan 10:00etatik 13:30era eta	
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Ertzaintza (Azkoitia)	943 08 37 80	ostegunetan 16:00etatik 19:30era.	



fototeka

Nolakoa zen Azpeitia? Galdera horri erantzun nahi dio Azpeitiko Argazki Elkarteak. Azpeitia eta inguruak islatzen dituen argazki zaharrak bildu nahi ditu.



1974-I-20an Pepe Gil argazkilariak San Sebastian egunean eliz atarian atera zuen. Aurrean, musika bandako kantinerak agertzen zaizkigu: M^a Jose Larriba, Urrategi Alberdi eta Ana Saldaña. Atzerago, J.M^a Altuna bandako zuzendaria eta barrenean, Abel Segurola.

Anekdotak gisa: Kantineren gorroak edo kapelak Azkoitiko musika bandako gorroak ziren.

Mertxe Landak
utzitako argazkia.



1910 urtea baino lehenagoko argazkia da.

Basilikako eskaileratik ateratako irudi honetan Loiolako etorbidea ikus daiteke.

Silvestre Otamendi
Lasak ateratakoa.

Eulalia Otamendik
utzitako argazkia.

Proposamenak, kexak...



Segurtasuna Landetan

Landeta auzokoei gustatuko litzaiuke segurtasun gehiago edukitzea Asepeyo eta Zelan inguruko rotondan. Zebrabidea eta semaforoarekin "ambar"-en ez du asko laguntzen, 20 gidaritik bat bakarrik gelditzen da eta okerrago Errezil, Urrestilla edo Urrakitik badator. Seguruago izango zen oinezkoentzako botoia duten semaforoa egotea. Ez dugu uste asko eskatzen dugunik, herriko beste leku batzuetan ere badago. Aurrekoan eman zidaten aitzakia, gune horretan txapa istripuak egoteko aukerak zeudela. Uste dugu beti hobeago izango dela txapa istripuak egotea eta ez pertsona bat izatea ez?

Txaro Uribesalgo

Enparan Dorretxea

1. Liburutegiko oharrentzat ez al dago leku hoberik? Eraikinak merezi duelakoan nago.
2. Egoera hau noiz arte? Seinaleak zertarako daude jarrita? Susto ederrak sar-

tzerakoan-irteterakoan (kotxeak aurrez aurre). Istripu bat izan arte?



Zebrabideak Loiolan

Loiolako Inazio etorbidea zeharkatzeko Esklaba eta Kiruri pareko zebrabideez gain tartean beste batzuk beharrezkoak direla iruditzen zait. Gainera Etxebeltz-lzarran auzo berri bat sortzen ari den honetan oraindik eta beharrezkoagoa dela esango nuke, alde batean auzo hori eta beste aldean Izarraitz auzoa, ikastola, Jesus eta Maria komentua... daudela kontuan izanda. Errepideko zebrabideak baino lur azpiko pasabideak hobeak dira, eta agian hau da horiek egiteko momentu egokiena, inguruan obrak egiten ari direnez. Nahiz eta errepide hori Foru Aldundiarena dela jakin, Azpeitiko Udalak zeresan eta zeregin handia duen gaia dela iruditzen zait, eta bere esku dagoena egiteko eskatu nahi nuke. Eskerrik asko.

N. Muxika

Txaribarko Errebala

Txaribar errebalean, hilerritik behera kotxeek ematen duten abiadura altua dela-eta, kotxeek umeren bat harrapatzeko arriskua dago. Beraz, abiadura jaisteko koskak edo beste neurriren bat hartzea proposatzen dut. Bestalde, Soreasu auzotik Txaribar errebalera dagoen paso estua, oraindik okerrago geratu da, bertan jarritako hesiagatik. Honek, bertatik pasatzeko maniobra dexente egitea eskatzen du eta gainera zoruko egoera txarra (harri sueltoak) gehituz gero, penagarri geratzen da. Ea zerbait egiten den egoera hobetzeko.

Ainhoa Unanue

Aparkalekua Arana Goikoan

Arana Goikoako kaleetan gero eta zailagoa da aparkatzea. Torre handiaren atzeko zelaian aparkaleku ederra jarri dezakezue eta guri mesede ederra egin.

Jon Iraola goitia

Zakarrontzien kokapena

Loiolabideko etxebizitzaren aurrean hamar zakarrontzi daude, ez dira gutxi. Denak errepide aldera irekitzen dira, eta nahiz eta eramaten dituzten kamioientzat errazagoa izan, pertsonentzat oso arriskutsua gelditzen da, mesedez, aldatu.

Iñaki Iribar



www.azpeitia.net



Sartu zaitez www.azpeitia.net udal webgunean

- Tramiteak eta ordainketak etxetik egiteko modua eskaintzen dizu.
- Udal albisteak uneoro ezagutzekoa.
- Zure kexa, iritzi eta iradokizunak plazaratzekoa.
- Plenoetako aktak, udal ordenantzak, hiri antolamenduaren plan orokorra eta beste hainbat dokumentu ofizial kontsultatzekoa.

- Herriaren inguruko informazio erabilgarria eskuratzekoa, ekitaldien agenda eta guzti.

Eta gainera:

- Sexologia zerbitzua on-line: hileko azken ostiralero sexologoak zuen kezkak on-line erantzungo ditu.
- Udal liburutegia: bertako katalogora on-line sartzeko aukera eskaintzen dizu udal webguneak.

www.azpeitia.net. Udala zure eskura, klik batean.



Eskualdeko enpresak, sarean

Iraurgi Lantzen Urola Erdiaren garapenerako agentziak urtarrilean jarriko du erabilgarri webgune berria

azpeitian eta Azkoitian kokatzen diren enpresek beren txokoa dute dagoeneko sarean. Urola Erdia bailararen garapenerako agentzia Iraurgi Lantzenek, Valora ekimenaren baitan, bi urtez aritu da webgunea sortzen eta urtariletik aurrera bere webgunean izango dela erabilgarri aurreratu dute arduradunek.

Bi udalerrietako industria-guneetan aurkitzen diren enpresa guztien informazioa biltzen du herraminta berri honek: “Gutxi gorabehera, Azpeitiko eta Azkoitiko 350 enpresa biltzen ditu, jarduera desberdinetakoak, eta hauen informazio eguneratua jasotzen da. Bilatu nahi dugun enpresaren kokapen zehatza, helbidea, lan egiten duen jarduera edota logotipoa edo irudi bat ere ikus dezakegu”, adierazi

du Iraurgi Lantzeneko enpresa saileko teknikari den Alazne Larrañagak.

Enpresen sarea sortu eta osatu ondoren, eguneratuta mantentzea izango dela egin beharrik zailena onartu du arduradunak: “Izan ere, gauzak asko aldatzen joaten dira enpresetan. Hala ere, oso elementu interesgarria dela enpresentzat uste dugu. Inongo kosturik ez du eta oso erabil erraza da”, amaitu du Larrañagak.

“Azpeitiko eta Azkoitiko 350 enpresa biltzen ditu, eta hauen informazio eguneratua jasotzen da”

Irisgarritasun zigilua

Azpeitiko lau jatetxek Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Komertzio eta Turismo Sailak emandako Irisgarritasun Zigilua lortu dute. Mikel Uribe, Kiruri, Jai Alai eta Larrañaga dira gure udalerrian ezindak diren edo arazoak dituzten pertsonentzako ondo prestatuta dauden jatetxeak.

Eusko Jaurlaritzak jatetxeak aztertu ditu bost arlotan; ezindu fisiko, organiko nahiz intelektual, zein entzumen eta ikusmen arazoak dituzten pertsonak hartzeko nola prestatuta dauden baloratu du establezimendu bakoitza eta Azpeitiko jatetxeak onenen artean sartu dira. Programa honen helburu nagusia da, pertsona guztiak ahalik eta ondoen sentitzea turismo zerbitzua eskaintzen duten establezimenduetan.



Eguzkiñe Peña, 2010eko Kirolaria

Lagun Onak Futbol Taldeko lehendakari izandako eta eskolarteko txapelketaren sortzaile Jose Mari Eizagirrek Kirol Bolondresa saria jaso zuen

balantze orokorra egiteko ohitura izaten da urtea amaitzean, eta Kirola saila ez da atzean gelditu. Horrela, 2010ean gehien nabarmendu ziren kirolariak saritu nahi izan zituen abenduaren 18an egindako ekitaldian. “Zorionak hautagai guztiei! Dagoeneko hamar urte igaro dira Azpeitiko Kirolaria ekitaldia egiten hasi ginela eta poztekoa da urtero izaten diren emaitzak. Azpeitian kirola kantitatez eta kalitatez egiten da, errendimenduan, eskola kirolean eta aisialdi kirolean, eta eredu bihurtzen ari da herria”, agertu zuen Julian Kortajarena Kirol batzordeburuak.

Herriko talde bakoitzak bere hautagaia aurkeztu zuen, hamaika kirolari guztira, eta Kirol Batzordeak Eguzkiñe Peña futbolaria izendatu zuen 2010eko Kirolaria. Peña Errealeko nesken

taldearekin hiru urteko kontratua egin du aurtengo eta horregatik aukeratu dute urteko Kirolaria. Gaintzeko hautagaiek garaikurra jaso zuten Udal ordezkarien eskutik:

Lagun Onak Txirrindulari Elkartea:
Jon Dominguez

Azpeitiko Areto Futbol Taldea:
Jose Mari Blanco

Escuderia Lagun Artea:
Urtzi Oteiza

Azpeitiko Karate Elkartea:
Asier Huegun

Ilunpe Pilota Elkartea:
Xabier Aldalur

Ikasberri Kirol Elkartea:
Urtzi Lopetegui

Iraurgi Saskibalo Taldea:
Ana Larrañaga

Judo Club Kimura:
Maria Isabel Zabaleta

Izarraitz Igeri Elkartea:
Ainhua Goenaga

Kirol elkarteetatik kanpo (Erremontea):
Jagoba Labaka

Bestalde, Azpeitiko Udalak ematen duen Kirol Bolondresaren saria Jose Mari Eizagirrerentzat izan zen. Eizagirre Lagun Onak Futbol Taldearen lehendakaria izan zen 30 urte baino gehiagoz eta bere lanari esker sortu zen eskolarteko txapelketa.

Vamos a por el



helburu



Hamarreko igerilekua

Azpeitiko Kirol Patronatua herritarrei zerbitzu hobereana eskaintzeko lanean ari da

Udal Kirol Patronatuak helburu garbia du; puntuaziorik altuena lortzea eta horretarako jakin badaki zerbitzu berrituak eta hobeak eskaini behar dituela. Gaur egungo koiuntura ekonomikoak, ordea, ez du aldaketa asko egiten uzten eta horregatik, behar gehiena duen gunetik hasi dira, igerilekutik.

“Kanpoko igerilekuaren zati bat estaltzen hasi dira dagoeneko eta lan hauek amaitutakoan, hamar kale izango ditugu igeri egiteko. Kanpoko bi kale izarraitz elkartearen entrenamenduetarako erabiliko dira, beste biak ikastaroetan ibiltzen direnentzat zuzenduko dira eta barruko sei kaleak, berriz, herritarrentzat”, aurreratu du Kirol Batzordeburu den Julian Kortajarenak.

Kanpoko lanak amaitzean, ordea, barruko azpiegiturak berritzen hasiko dira. Osasun sailak aldaketak egiteko agindu du eta hori dela-eta, aste batzuetan itxita egongo da estalitako igerilekua. Putzua aldatuko dute, sakonera gutxiago emanez igerilekuari, modu honetan, ura eta berogailua aurreztuz: “Denbora batez, kanpoko lau kaleak bakarrik egongo dira erabilgarri. Badakigu ez dela egoera egokiena, baina azpiegiturak eta zerbitzuak hobetu nahi baditugu beharrezkoa da lanak egitea eta pazientzia eskatzen dugu. Udarako hamar kaleak zabaldua egotea espero dugu”, gaineratu du Ina Sagarzazu Kirol Patronatuko zuzendariak.


Lanek eragingo dituzten eragozpenak kontutan hartuta, urte berriko kuota KPI bakarrik igotzea erabaki du Udalak: “Normalean igoera handiagoa izaten

du, baina denbora batez azpiegiturak ezin izango direnez egoki erabili, %1,8ko igoera izango du”, azaldu dute arduradunek.

Merkatuko makina berrienak

Kiroldegiko zerbitzuak 2010 urtean esleitu ziren eta enpresa berri bat sartu da eta makina eta ikastaro berritzaileak jarriko dituela adierazi dute ordezkariak. Besteak beste, muskulazio gelako makina eta spinning bizikleta berriak ezarri dituzte, “merkatuko azkenak, ordenagailu txiki bat dute eta Polar etxeko pultsometroekin bateragarriak dira”.

Azkenik, eta ohiko ikastaroez gain, Bosu, Multifitness, Fitball edota GAP bezalako programa berriei gozatzeko aukera izango dute herritarrek.



Hasi dadila festa!

Aurtengo Danborrada 23:15ean hasiko da 25 talderen eta gastadoreen partaidetzarekin eta lehenbiziko geldialdia plazan egingo dute.

beste urte batez, eta dagoeneko badira 54, danbor eta barrika doinuak nagusituko dira Azpeitiko kaleetan zehar. Aurtengo festak, ordea, aldaketa batzuk izango ditu, jaiarekin ez duena amaituko.

Talde berriak sartu ahal izateko deialdia zabaldu zen 2010ean eta lau elkarte gehituko zaizkio aurtengo festari; Loiolabide Zahar, Loiolatxo, Zulozabal eta Ollagorrra. Gastadoreek ere danbor-joleen taldea ateratzeko baimena zuten

baina azkenean ez dute osatzerik izan eta lau izango dira talde berriak. Elkarte hauek festan gehitzeak, ordea, aldaketak eragingo ditu urtarrilaren 19ko Danborradan. Honela, Sanjuandegiko hiru taldeak (Loiolatxo, Sanjuandegi eta Loiolabide Zahar) 22:45ean auzotik abiatuko dira herriko erdigunera eta Artetxe inguruan elkartuko dira gainontzeko taldeekin.

Danborradaren hasiera 23:15ean izango da, ohikoa baino ordubate

beranduago, eta Goiko kaletik igaro ondoren, plazara sartuko dira lehenbiziko geldialdia egiteko. Gauerdirako talde guztiak plazan kokatuta egongo dira eta banderaren igoeraren ekitaldia egingo dute, pieza desberdinak joaz. Plazan talde denak sartzeko arazorik ez dela egongo ziurtatu dute Udal ordezkariak, izan ere, kiosko alboan ezartzen ziren bozgorailuak desberdin antolatuko dira eta herritarrentzat leku gutxiago izango da.

Perez Arregi plazan

Jarraian Parrokiantz joango dira. Azken urteetan toki gutxi izan bada taldeentzat, aurten oraindik eta gutxiago, eta horregatik, Parrokiko geldialdiak ere aldaketa nabarmenak izango ditu. Parrokiko atarian bederatzi elkarte sartuko dira (Arauntza, Sanjuandegi, Izarraitz-Txoko, Zokoa, Basazabal, Ziripot, Landeta, Alkartasuna eta Ollagorria), ondoko kaleetan beste bederatzi (Harkaitza, Amnistia, Arrantzaleak, Gure Ametsa, Ardozaleak, Loiolabide Zahar, Zulozabal, Loiolatxo eta Itsasi) eta gainontzeko taldeak Perez Arregin egongo dira (Mendizaleak, Barratsu, Zezenzaleak, Barrenetxea, Oilo-Soro, Irrintzi eta Txalintxo). Azken elkarte hauek bideo-pantaila handi bat izango dute Parrokian kokatuko den musika bandari jarraitu ahal izateko.

Ondoren ohiko ibilbidea jarraituko dute Plaza Txikian amaituz aurtengo Helduen Danborrada. Ordezkariek aurreikusten dutenez, 01:30ak inguruan emango da amaitutzat gaueko festa.

Hilaren 19ko Danborradak aldaketa handia jasango du baina festa hobetzeagatik egin denaren dudarik ez dago, hala ere, argi dute ordezkariak jaiaren aldaketa berriak guztiz finkatu arte, “behar bada talde gehiagok ezin izango dute parte hartu urte batzuetan, aldaketa eta kanbio hauek finkatu arte behintzat”, esan du Jabier Altuna Festa batzordeburuak.


Entseguak

Jaiaren motorrak martxan jarriko dira laster eta urtarilaren 19ko festan parte hartuko duten danbor-joleak entseguetan hasiko dira hurrengo egunetan. Horrela, denera hiru saio egingo dira, hilaren 11ean, 13an eta 18an. Azken urteetan bezala, entseguak 21:00etan hasiko dira Izarraitz pilotalekuan eta Udal musika banda ere bertan izango da.

“proposamen desberdinak aztertu ziren eta 23:15ean ateratzea eman zuten ontzat bai taldeek eta bai Udalak”

Ordu aldaketaren zergatia

Datorren urtarilaren 19ko Helduen Danborradaren hasiera ordubetez atzeratuko da, 22:15etik 23:15era hain zuzen ere, eta honen azalpen zabala eta garbia ematea nahi dute Udal arduradunek: “Ohiko ordutegia mantenduz gero, hau da 22:15ean, eta aurten irtengo diren talde berriak direla-eta, egin ditugun kalkuluen arabera ez zuen denborarik emango herritik itzuli osoa eman eta gauerdirako talde guztiak plazara iristeko”, agertu du Jabier Altuna Festa batzordeburuak. Udalak lehenago irteteko proposamena luzatu zien taldeetako ordezkariari baina hauek ez zuten egokitzat jo hasiera aurreratzea. Honen ondoren, “proposamen desberdinak aztertu ziren denen artean eta 23:15ean ateratzea eman zuten ontzat bai taldeek eta bai Udalak”, gaineratu du Altunak. Era berean, taldeek eta Udalak bileretan ageri izan duten jarrera eraikitzailea eta positiboa nabarmendu nahi du Festa batzordeburuak.





Txikienak ere, protagonista

Danborradak ez du etenik izango urtarrilaren 20an. Goizean Ardozaleak eta Gure Ametsa elkarteek herriko kaleak alaituko dituzte musika bandaren laguntzarekin. Ondoren, Udal agintariak prozesioan joango dira parrokiara eta barruan, danbor-joleek 'San Sebastian martxa' joko dute.

Eguerdian sokamuturra izango da plazan eta 12.30ean haurren danborrada hasiko da. Azpeitiko 500 haur eta gaztetxo baino gehiagok hartuko dute parte bertan, herriko kaleak kolore alai eta biziz jantziz. Desfilearen atzean, Eider Joaristik *Julian Barrenetxearen heriotzaren 50. urteurrena eta Julian Barrenetxea Abesbatzaren sorreraren mende laurdena* gaien inguruan diseinatutako karroza joango da.

Arratsaldeko ekitaldiak eta gero, eta San Sebastian festekin amaitzeko, bandera jaistearen ibilbideari ekingo zaio 23:15ean Olazko Amaren plazatik. Aurten, ordea, aldaketa handia izango du ekitaldi honek, izan ere, lau taldetik sei izatera igaroko

dira; Zokoa, Basazabal, Ziripot, Landeta, Alkartasuna eta Ollagorra. Taldeen gehitze honek, banderaren jaitsiera sustatuko duela espero dute Udal ordezkariak.

Eider Joaristi

Aurtengo karrozaren diseinatzailea



Sorpresaz hartu al duzu aukeraketa?

Bai, arkitektura ikasketak amaitu berri ditut eta lehiaketa amaitu baino astebete eta erdi lehenago hasi nintzen ideia garatzen. Gaiek ere oso joko gutxi ematen dute. Gainera, lehenengo aldia zen aurkeztzen nintzena eta banekien beste zazpi proiektu ere bazeudela, baina oso pozik nago.

Gutxi falta da egun handirako.

Dena prest?

Denbora gutxi izan dugu guztia antolatzeko, baina oso ondo doa. Gutxi gorabehera muntatuta dago, xehetasunak falta zaizkio, baina ederra ari da garatzen.

Eta egunean bertan, gozatu edo sufritu egingo duzu?

Ikusiko dugu... karroza egiten eta muntatzen den lekutik ateratzeko malda dago eta horrek arduratu egiten nau. Brigadakoek aterako dute karroza handik. Baina bai, urduri egongo naiz segur aski, baina partaide guztiek egindako lana ondo aterako delakoan nago.



1.-

1.- LOIOLA

Loiolan kokatzen den izen berdineko klinika aurrea semaforo bidez ordenatuko da eta zebrabidea ezarriko da.

Aurrekontua: 235.000 €



2.-

2.- LANDETA

Akamendiko etxe parean pultsadorearekin funtzionatzen duen semaforoa ipiniko da.

Aurrekontua: 40.000 €



3.-

3.- IGERILEKUA

Barruko igerilekuaren putzua txikituko da osasun neurriak betetzeko.

Aurrekontua: 369.000 €

4.- SANJUANDEGI

Sanjuandegiko Euskal Herria auzoan bidegorri zati berria eraikiko da, Errotaundi okindegitik hasi eta etxebizitza familiabakarretik igaroko dena.

Aurrekontua: 117.000 €

5.- GARATE ANAIA

Garate Anaia auzoan, Azillerri bezala ezagutzen den gunean, espaloia eraikiko da eskaileren alternatiba gisa.

Aurrekontua: 59.000 €



4.-

6.- DONE JAKUE

Done Jakueko lanen bigarren fasearen baitan, zoladura ipiniko da kale guztian zehar.

Aurrekontua: 600.000 €



5.-



6.-

Edukiontzi marroia sustatuz



Urola Erdiko Mankomunitateak eta Foru Aldundiak hitzarmena sinatu dute eskualdean edukiontzi marroien erabilera sustatzeko. Aldundiak 50.000 euro jartzen ditu Urola Erdiko herrietan bosgarren edukiontziak zabaltzeko: “Urrats garrantzitsua ematen ari gara, baina sendotzen jarraitzea nahi da eta bide honetatik jarraitu behar dugu”, azaldu zuen Lapatzeko presidentea den Julian Eizmendik. Asier Aranbarri Azkoitiko alkateak helburua Azpeitia eta Azkoitiko familien %25ak edukiontzi marroia erabiltzea dela adierazi zuen: “Azkoitian 993 familiak erabiltzen dute eta Azpeitian beste 640rek. Datorren urtean ea 2.200 familietara iristen garen”.

Zezenzaleak Caritas-i laguntzen



Zezenzale Batzordeak 6.000 euro eman dizkio Caritas elkarteari. Dohaintza boluntarioa dela agertu dute arduradunek, “izan ere, azken urteko San Inazio jaietako zezenketek ez zuten irabazirik utzi eta horregatik, genituen gerakinak edo soberakinak erabili ditugu dohaintza hau aurrera eramateko”, esan zuen Joxin Iriartek. Caritas elkarteak kide den Maria Dolores Udabek eskerturik jaso zituen 6.000 euroak udaletxeko areto nagusian Julian Eizmendi alkatearen eta Zezenzale Batzordearen lehendakariaren eskutik.

Ikusleen saria, 'Errautsak' lanarentzat



azken urteetako ohiturari jarraituz, Azpeitiko Udalak Santo Tomas eguna aprobetxatu zuen Antzerki Topaketen baitan antolatzen den Ikusleen saria emateko. Modu honetan, aurten-go saria Le Petit Theatre de Pain, Artedrama eta Dejabu taldeetako ordezkariak jaso zuten joan zen abenduaren 21ean udaletxeko areto nagusian Onintza Etxeberria zinegotziaren eskutik: "Sari berezia da, herritarrek eta ikusleek beraiek ematen dutelako. Zorionak, ondo merezitako saria duzue eta!", adierazi zuen Etxeberriak. Antzerki Topaketetara hurbildu ziren ikusleen botoei esker, *Errautsak* antzezlanak 600 euro irabazi ditu.

Azpeitiko historia, 7 liburutan



hiri Gutunaren 700. urteurrena gogoratzeko antolatu den egitaraua borobiltzeko, Udalak herriko historia jasotzen duen liburu bilduma argitaratu berri du. Bildumaren lehenengo bost liburuak abenduaren 17an aurkeztu zituzten udaletxeko areto nagusian, Julian Eizmendi alkatea, Ana Mendiabai zinegotzia eta liburuaren egileen eskutik. "Alor desberdinak jorratzen dira liburu hauetan. Gure herriko altxorak jasotzen dira eta Azpeitiaz gehiago jakin nahi dutenentzat oparia da", azaldu zuen Eizmendik. Era berean, bilduma osatzeko falta diren gainontzeko bi liburuak laster egongo direla eskuragarri aurreratu zuten Udal arduradunek.

agenda

URTARRILA

					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24/31	25	26	27	28	29	30



1, larunbata

LAGUN ONAK M.B.
ERLORA MENDI IRTEERA
Ordua: Goizeko 9:00etan
Lekua: Plaza Nagusia

IRAURGI ikastetxeak antolatuturik:
XV. BELEN ERAKUSKETA
Lekua: Betharram aretoa
18:00etatik 20:00etara

2, igandea

GABONETAKO JOLAS PARKEA
16:00etatik 20:00etara
Lekua: Izarraitz pilotalekua

IRAURGI ikastetxeak antolatuturik:
XV. BELEN ERAKUSKETA
Lekua: Betharram aretoa
18:00etatik 20:00etara

3, astelehena

GABONETAKO JOLAS PARKEA
16:00etatik 20:00etara
Lekua: Izarraitz pilotalekua

IRAURGI ikastetxeak antolatuturik:
XV. BELEN ERAKUSKETA
Lekua: Betharram aretoa
18:00etatik 20:00etara

4, asteartea

GABONETAKO JOLAS PARKEA
16:00etatik 20:00etara
Lekua: Izarraitz pilotalekua

Baigerakoek antolatuta, Erregeei zuzendutako gutunak jasoko dituzte pajeek
Ordua: 17:30ean
Lekua: Udaletxeko arkupetan

IRAURGI ikastetxeak antolatuturik:
XV. BELEN ERAKUSKETA

Lekua: Betharram aretoa
18:00etatik 20:00etara

5, asteazkena

ERREGE MAGOEN KABALGATA
Meltxor, Gaspar eta Baltasar
Azpeitiko kaleetan zehar
19:00etan

6, osteguna

AZPEITIKO MUSIKA BANDA
URTEBERRI ETA ERREGE
EGUNEKO kontzertua
13:00etan
Lekua: Udaletxeko arkupetan

8, larunbata

SANAGUSTIN KULTURGUNEAN
RUPER ORDORIKAREN kontzertua
22:30ean

DVD EMANALDIA

Filmea:
17:00etan
22:00etan
Lekua: Betharram aretoa

ESKOLARTEKO
SASKIBALOIOko FINALAK
- Lekua: kiroldegia.
15:00etan

9, Igandea

SANAGUSTIN KULTURGUNEAN
UMEENTZAKO ANTZERKIA
Umeen museoa (EIDABE)
18:00etan

DVD EMANALDIA

Filmea:
17:00etan
22:00etan
Lekua: Betharram aretoa

11, asteartea

SAN SEBASTIANAK 2010
Helduen entsegua
21:00etatik 22:00etara
Lekua: Izarraitz pilotalekua

13, osteguna

SAN SEBASTIANAK 2010
Helduen entsegua
21:00etatik 22:00etara
Lekua: Izarraitz pilotalekua

SAN SEBASTIANAK 2010

Umeen entsegua
16:00etatik 17:00etara
Lekua: Izarraitz Pilotaleku

ZINE KLUBA
Filmea: Submarino
21:30ean
SANAGUSTIN
KULTURGUNEAN

15, larunbata

LAGUN ONAK M.B.
AZPEITIA-SORALUZE
MENDI IRTEERA

SANAGUSTIN KULTURGUNEAN
PROIEKZIO kontzertua:
TSENE + PARALUX
19:00etan

DVD EMANALDIA

Filmea:
17:00etan
22:00etan
Lekua: Betharram aretoa

16, Igandea

SANAGUSTIN KULTURGUNEAN
EZKON AZOKA
13:00etan



DVD EMANALDIA

Filmea:

17:00etan

22:00etan

Lekua: Betharram aretoa

17, astelehena

SAN SEBASTIANAK 2010

Umeen entsegua

16:00etatik 17:00etara

Lekua: Izarraitz pilotaleku

18, asteartea

SAN SEBASTIANAK 2010

Umeen entsegua

16:00etatik 17:00etara

Lekua: Izarraitz pilotaleku

SAN SEBASTIANAK 2010

Helduen entsegua

21:00etatik 22:00etara

Lekua: Izarraitz pilotaleku

V. ZUK ERE AHAL DUZU!

Etorri lasterka egitera...

- Bilera informatiboa:

urtarrilaren 18a (asteartea)

10:00etan eta 18:15ean

19, asteazkena

SAN SEBASTIAN BEZPERA

HELDUEN DANBORRADA

24:00etan

Talde guztiak bilduta, Plaza Nagusian

Danborradako piezak joko dituzte

Udal musika bandaren laguntzarekin

00:30ean

Txaranga kaleetan zehar

20, osteguna

SAN SEBASTIAN EGUNA

Diana, Prozesioa, Sokamuturra

eta Umeen Danborrada, karroza,

arratsaldeko sokamuturra

eta bandera jeistea.

SAN SEBASTIANETAKO

PILOTA PARTIDAK

Lekua: Izarraitz pilotaleku.

17:00etan

22, larunbata

SANAGUSTIN KULTURGUNEA

kontzertua:

AMA SAY + BORROKAN

22:30ean

DVD EMANALDIA

Filmea:

17:00etan

22:00etan

Lekua: Betharram aretoa

23, Igandea

ZEZEN BELTZ ELKARTEAK antolatuturik

Zezen txikiak eta poniak

12:00etan

Lekua: Plaza Nagusian

SOKAMUTURRA

16:30etik 20:00etara

DVD EMANALDIA

Filmea:

17:00etan

22:00etan

Lekua: Betharram aretoa

25, asteartea

V. ZUK ERE AHAL DUZU!

Etorri lasterka egitera...

- Lasterka egiteko saio-gidatuak:

astearte eta ostegunetan.

- Goizeko taldea: 10:00etatik 11:15era

arratsaldeko taldea: 18:15etik 19:30era

- Nori zuzendua: adin guztietako

emakumeei (gutxienengo

adina: 16 urte).

- Saioen hasiera eguna:

urtarrilak 25 (asteartea).

26, asteazkena

SANAGUSTIN KULTURGUNEA

HITZALDIA: IMANOL LAZKANO

19:00etan

27, osteguna

ZINE KLUBA

Filmea: Conoceras al hombre de tu vida

21:30ean

Lekua: Sanagustin Kulturgunea

28, ostirala

SANAGUSTIN KULTURGUNEA

KONTZERTUA:

BIDE ERTZEAN

22:00etan

29, larunbata

DVD EMANALDIA

Filmea:

17:00etan

22:00etan

Lekua: Betharram aretoa

30, Igandea

LAGUN ONAK M.B.

AZPEITIA-AZKOITIA

MENDI IRTEERA

DVD EMANALDIA

Filmea:

17:00etan

22:00etan

Lekua: Betharram aretoa

SANAGUSTIN KULTURGUNEA

KONTZERTUA: AURKEZPENA

ORNITORRINKUS

19:00etan



Soreasuko
aparkalekua
urtarrilaren
10era arte
guztiz doan

goizeko 09:00etatik
gauko 21:00etarako
ordutegian

botikatxandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
urtarrilaren 2, 7, 12, 17, 22, 23 eta 27

ARANBURU. Plaza Nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
urtarrilaren 11 eta 20

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49
urtarrilaren 1, 5, 8, 9, 13, 18, 26 eta 31

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
urtarrilaren 3, 14, 19, 24, 29 eta 30

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58
urtarrilaren 6, 10, 15, 16, 21, 25 eta 28

